



hazten

ETXEKO EREMUAN TRATU TXARRAK JASAN ETA
MENPEKOTASUNAK GARATU DITUZTEN EMAKUMEAK
SENDATZEKO ETA GIZARTERATZEKO ZENTROA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Bienestar Social



zein beharri erantzuten dion



2009ko maiatzerako aurreikusten den “Etxeko eremuan tratatu txarrak jasan eta menpekotasunak garatu dituzten emakumeak sendatzeko eta gizarteratzeko **Hazten** Zentroaren”, irekierak hainbat gizarte eta erakunde eragilek detektatutako behar bati erantzuten dio:

- Emakundek – Emakumearen Euskal Erakundeak egindako “*Emakumeen kontrako etxeko tratatu txarren arloko gizarte-zerbitzuen ebaluazioa*” txostenak, tratatu txarrekin lotutako beste zenbait zaurkortasun aurkezten dituzten emakumeei arreta emateko beharra gero eta handiagoa dela azpimarratzen du, izan ere gaur egun dauden baliabideak kasu estandarretarako pentsatuta daude baina ez problematika erantsiak dituztenetarako.
- Egindako hainbat azterlanen arabera, tratatu txarrak jasan dituzten emakume drogomenpekoen portzentaia garrantzitsua da, kasuen %60 inguru. Izan ere, gaian adituak direnen arabera, tratatu txar-egoerak substantzia toxikoen kontsumoaren hasierarekin edo mantentzearekin lotuak egongo lirateke.

- Erakunde arteko Hitzarmenaren Segimendu Batzordeak (Emakunde) landutako *“Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programak”* drogomenpekotasun aktiboko arazoak edo adimen-patologiak dituzten eta estaldura anbulatorio egokirik ez duten emakumeak babesteko asistentzia-erantzun hobea emateko beharra adierazten zuen.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren jarduera-esparruak jada adierazi zuen (2007ko irailean) harrera-baliabideen sorta eta sarea osatzeko beharra, ondorengo esanez: *“...etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak sendatzeko eta gizarteratzeko zentro bat modu esperimentalean abian jartzea aurreikusten da. Zentro hori gizarte-problematika anizkoitzari lotutako premia bereziak (babes-maila eta espezializazio-maila handia eskatzen dutenak) dituzten emakumeei eta haien kargu dauden senitartekoei zuzenduta egongo da, eta intentsitate handiko gizarte-babes neurriak aplikatuko ditu.”*

Horregatik, aipatutako kolektiboaren beharrei behar bezala erantzuteko, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak **Hazten** Zentroa sortzen du izaera esperimentalarekin eta, hura kudeatzeko ardura, Gizakia Fundazioari ematen dio, toxikomanien esparruan esperientzia zabala duen erakunde baina, Suspergintza Elkarteko tratu txar-egoeran dauden emakumeei laguntza emateko taldearekin elkarlanean.

zein biztanleriari zuzendua



Proiektua ondorengo emakumeei zuzendua dago: “Etxeko eremuan genero-indarkeria egoera jasaten duten eta substantzia toxikoren baten abusuko edo menpekotasuneko diagnostikoa jaso duten Euskal Autonomia Erkidegoko adin nagusiko, zein emantzipatuta dauden adin txikiko, emakumeei, baldin eta bi problematika horiei aurre egiteko konpromisoa badago. Baliabideak emakume horien kargura dauden adin txikikoak edo haien erantzukizunaren pean dauden mendeko senideak ere hartuko ditu”.

Baliabidea eskuratzeko, larritasun handieneko gizarte-problematika anizkoitza duten emakumeak izango dute lehentasuna: familia edota gizarte-laguntzako sarerik eza, sarrera-ekonomikoen gabezia edo patologia duala (adimen-patologia eta substantzia batekiko menpekotasuna aldi berean) jasaten dituztenak.

Zerbitzu horretatik kanpo geldituko lirateke fase aktiboan dagoen gaixotasun infekzio-kutsakorren bat edo osasun-arreta espezifiko behar duen patologia organikoren bat duten emakumeak. Eta, baita, patologia psikiatriko desorekatua izateagatik, egoitza-baliabideko bizikidetza edota tratamendua galarazten dutenak ere.

baliabidearen deskribapena



Hazten Zentroa, esku-hartze intentsitate handiko egoitza-zerbitzua da eta ondorengo helburu nagusia du:

Etxeko eremuan tratu txarretako biktimak izan diren eta substantziak kontsumitzen dituzten emakumeei errehabilitazio-tratamendu integral bat eskaintzea, emakume horiek marjinazio eta indarkeria-zirkuitutik urrun egotea ahalbidetuko dien normalizazio eta autonomia-egoera batera eramateko.

Balibide honetan orotara 7 emakume hartu ahal izango dira, eta gehienez 15 plaza izan ditzake, bere arduran dauden adingabeak edo mendeko senitartekoak barnean hartzen badira. **Hazten** Zentroak pertsonal espezializatu izango du une oro, arreta eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan bermatuta egon dadin, eta horrela, tratamenduko, laguntzako eta akonpainamenduko zerbitzuak, zein zerbitzua emateko nahikoak eta egokiak diren segurtasun-neurriak, eskaini ahal izango dira.

Hazten Zentroan egingo den esku-hartzearen ikuspegia bio-psiko-soziala izango da eta alderdi psikologikoak, psikiatrikoak, hezkuntzakoak, sozialak, juridikoak eta prestakuntzarekin eta lanarekin loturikoak barne hartzen dituen izaera integrala izango du.

Kasu guztietan ere, tratamendua, baliabideko emakumeen kontsumo-egoerarengatik eta indarkeriarengatik eratorritako alderdi negatibo guztiak gainditzera bideratua egongo da eta emakume erabiltzaileek autonomia-maila handiagoak lor ditzaten saiatuko da.

Terapiarekin eta heziketarekin lotutako esku-hartzearen berezko helburuez gain, baliabidearen barnean beste zenbait alderdi ere landuko dira, hala nola, bizikidetzak, higiena eta autozainketa, autonomia pertsonala eta aisiaren eta astialdiaren kudeaketa.

Hori lortzeko, erabateko dedikazioa eskainiko duen talde multiprofesional bat izango du, psikologo kliniko batez, gizarte-langile batez eta sei gizarte-hezitzailez osatutakoa. Delako taldea osatzeko, psikiatra bat, abokatu bat, prestakuntza eta lan arloko orientatzaile bat eta garbiketako, sukaldeko eta mantentze-lanetako pertsonal laguntzailea egongo dira. Halaber, Gizakia Fundazioaren laguntza izango dute administrazioari eta kudeaketari dagokienez.

Baliabidean egoteko zenbatetsitako aldia urtebetekoa izango da. Epealdi hori igarotakoan, beste 6 hilabetez luzatu ahal izango da gehienez, baldin eta sartzeko eskubidea eragin zuten baldintzak mantentzen badira.

zentroaren sartzea



“Etxeko eremuan tratu txarrak jasan eta menpekotasunak garatu dituzten emakumeak sendatzeko eta gizarteratzeko **Hazten Zentroa**”, gizarte-zerbitzuetako sareko zein osasun-sareko baliabideen (emakumearen udal-sailak eta, gizarte zerbitzu espezializatuak edo oinarrizkoak, lehen mailako arretako zentroak, adimen-osasuneko zentroak, toxikomania-zentroak, ospitaleak...) zerbitzura jartzen da, horiek ohartu baitaitezke “zein biztanleriari zuzendua” atalean adierazitako baldintzak betetzen dituzten emakumeen egoeraz.

Emakume bat zentroan sartzea eskatzeko, zerbitzu bideratzailea zerbitzu horren koordinatzailearekin harremanetan jarriko da eta, eskariarekin batera, erabiltzaile bihur daitekeen emakumearen egoera pertsonalari buruzko txosten bat bidali beharko du fax bidez. Komunikazio horren ondoren, zentroko profesionalek balorazio-elkarrizketei hasiera emango diete. Horren ondoren, elkarrizketatutako emakumea baliabidean sartzea egokitzen jotzen bada, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak emakumea ba-

liabidean sartzea baimenduko du azkenik eta emakume hori erroldatuta dagoen Lurralde Historikoko Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari delako erabakia jakinaraziko dio.

Nolanahi ere, sartzea egokitzat jotzen ez bada, interesdunari, zerbitzu bideratzaileari eta bi erakundeei zergatiak jakinaraziko zaizkie eta, hala badagokio, emakumearen beharretara hobeto egokitzen den beste baliabide batetara bideratzea iradokiko du.



hazten

FAXA:

944 010 019

E-MAILA:

hazten@gizakia.org